

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### 2020ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren diru bilketa

Nik, Igor Medina Isasa jaunak, Barrundiako Udaleko alkateak, ondokoa

Jakinarazten dut: 2020ko urriaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango direla araututako epean 2019ko ondoko zergak:

#### JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

##### I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2020ko urriaren 20tik 2020ko abenduaren 21era arte.

B) Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 22tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarquak, premiamendu murriztukoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

##### II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenean udalak kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

##### III. Gomendioak

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaeta, 2020ko irailaren 9a

*Alkatea*

*IGOR MEDINA ISASA*